


# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Ikatza eta erregai fosilak erabiltzen dituzten zentralak ez bezala, zentral geotermikoak Lurrren barneko fluido gainberotua erabiltzen du.

Lurraren bero naturalak sortzen ditu baliabide geotermikoak. Bero hori urtutako arroketatik dator, magmatik.




# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Milaka urtetan euritik datorren ura sartu egin da Lurraren azaletik eta lurrazpiko biltegieta elkartu da eta magmak ura gainberotu egin du.

Fluido gainberotura iristeko 3000 metroko sakonerarainoko zulaketak egin behar dira. Zulo horiek, ekoizpen-zuloak, fluido gainberotua lurraren azalera ekartzen dute.




# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Jasaten duten presiopean, gainerotutako fluidoak erraz iristen dira lurrazalera. Igotzen doan neurrian presioa jeisten doa eta fluido horren parte bat lurruna bihurtzen da.

Lurrazalean fluido likido eta lurrunaren nahasketa da eta banatu egiten dira. Banatzaile honetan lurrun gehiago sortzen da presioa jeisten doalako.




# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Lurruna turbina batera eramaten da. Lurruna bihurtu ez dena berriro itzultzen da -injektatzen da- lur-azpiko biltegia.

Turbinak elementu nagusiak dira prozesuan: bertan energia geotermikoa energia mekanikoa bihurtzen da. Lurruna hodietatik eramaten da turbinetara eta daramaten energia erabiltzen da turbina mugitzeko.




# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Turbinak sorgailu elektrikoarekin lotuta dagoen ardatza mugitzen du. Honela, korrante elektrikoa lortzen da. Korrante hori transformadorera eramaten da.

Transformadorean, potentzial elektrikoa handitu egiten da garraiatu aurretik.




# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak




Energia geotermikoa berriztagarria da eta lur-azpian dagoen ura naturalki berotzen da eta kontsumitutakoa ordezkatzeko du.

Dena den, fluidoak kontsumi daitezke emari handia ateratzen bada . Hori ekiditzeko erabilitako ura eta lurrina -likidua bihurtu ondoren- injektatuz itzuli egiten da lur-azpiko biltegira.



# Nola funtzionatzen duen zentral geotermikoak



Injektatutako ur hori berriro gainberotzen da magmaren eraginez.